

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

633

EBAZPENA, 2016ko urtarrilaren 28koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

Erizaintzako UEko (Bizkaia) zuzendariak egindako txostena ikusita eta lanposturako proposatutako pertsonak 2015eko irailaren 24ko Ebazpenean (2015eko urriaren 8ko EHAA) eskatzen ziren betekizunak eta ezaugarriak betetzen dituela ikusita –ebazpen horretan UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askeaz betetzeko deialdi publikoa iragartzen zen–, ebazpen horren laugarren oinarria betez eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorritik (1989ko uztailaren 28ko EHAA). Gerentzia honek, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Ebazpenaz eskuordetu zaizkion aginpideez baliatuz (2013ko otsailaren 13ko EHAAn argitaratutako ebazpena, gobernu taldearen egitura eta funtzio-namendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzen dena), honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Zarza Basabe funtzionarioa izendatzea behean azaltzen den lanpostua betetzeko.

- Izena: B Administratzailea
- Erref.: F 592
- Eskala: Administraria
- Taldea: C
- Zenbatgarrena: 9
- Maila: 22
- Hizkuntz eskakizuna: 3; derrigorrezko data: 2014ko urtarrilaren 31
- Langunea: Erizaintzako UE (Bizkaia)
- Campusa: Bizkaia.

Bigarrena.– Izendapenak EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera ondorioak izango ditu.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunear hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetako 160. artikuluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 116. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2016ko urtarrilaren 28a.

Gerentea,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.